



El ayuntamiento notifica a la juventud de Makala la obligación de desalojar el local un el plazo de cinco días que finalizaría este próximo viernes. La carta llegó al Gaztetxe durante la mañana de ayer (martes 3 de noviembre). Las jóvenes del Gaztetxe ya han anunciado que no saldrán de un recinto que encontraron vacío y muerto en septiembre de 2007 y que desde entonces vienen llenando de alternativas basadas en la autogestión y la promoción de un espacio de ocio liberador para las personas. Así mismo han manifestado su voluntad de defender el proyecto "Makala" más allá de las cuatro paredes del Gaztetxe. Próximamente anunciarán movilizaciones de protesta. En el interior de la noticia encontraréis la nota de prensa remitida.

## **Prentsa oharra:**

Makala Gaztetxea, 2007ko irailaren 2an okupatu zen Barakaldoko gazteon eskura jarritz (ordura arte, urteak zeramatzan hutsik, zikin eta inolako erabilerarik gabe) . Hainbat alternatiba plazaratu ditu Gazte Asanbladak proiektu iraultzaile horrekin: tailerrak (musika, komikiak, malabarismoa, antzerkia, dantza...), bideo-forumak, hitzaldiak (nazioartea, feminismoa, ama lurraren defentsa...), bertso-afariak, herri-bazkariak, jolasak, eztabaidak, espekulatzeko nahirik gabeko txapelketa parte hartzaileak (futbitoak, musa...), euskararen aldeko ekimenak... azken finean, bi urte hauetan zehar, eremu aske eta autogestionatu batean bilakatu da.

Atzo, Barakaldoko udal agintari eta kolaboratzaile faxisten eskutik, desalojoaren gutuna jaso genuen, bertan bost eguneko epea dugula gaztetxetik irteteko ohartaraziz. Erantzuna oso argia da: Ez, ez gara Makala gaztetxetik mugituko, ez gaituzue kale gorrian utziko, gurekin ezin izango duzue! Hamaika aitzaki erabili dituzue Makalatik kanporatzeko, besteak beste, lizentziarik ez izatea, baimenik gabeko barra eta sukaldea izatea, konponketa lanak asegururik gabe egin izana, eta nola ez aipagarrienetarikoa, bizilagunei ustez eragiten dizkiegun molestiak ere baliatzen dituzte. Arrazoia duzue, ez dugu baimenik, alegia, ez dugulako zuen baimenik nahi ezta behar! Ondorioz, argi eta garbi ikusten da PSOE-PPren erabaki politiko baten aurrean gaudela non gaztetxeak sistema kapitalista eta zapaltzailearen kontra jokatzeko duenez bidetik kendu nahi gaituzte, hala nola, bere bide zikin horretatik.

Beraz, hau ez da lau hormaren kontra egiten den eraso udal jaun-andre faxistok, gazte antolatuen zein bere proiektu iraultzailearen kontrako eraso baizik. Jakin dezazuela gazteon eskubideak defendatzeko prest gaudela!

**MAKALA GAZTETXEA AURRERA!**

**ADI MOBILIZAZIOETARA!**